


1. BALIO PROPOSAMENA

Lan&Lo izena du gure enpresak eta gehien irudikatzen gaituen slogana:

“deskonektatu, deskantsatu eta disfrutatu”

Gure enpresa Donostian, Bizkaia pasalekuan kokatuta egongo da. Enpresa honek bizitzako bi ezinbesteko bizi baldintza ahalbidetzen ditu; **LAN eta LO**, izenak esaten duen bezala. Gure enpresak, deskantsatzeko eta denbora aprobetxatu ahal izateko zerbitzua eskainiko du. Enpresa honetan, lo egiteko aukera izango duzu ordu beteko txanda desberdinetan. Baita ere mahai batzuk egongo dira lana egiteko. Bertan, etxean bezala sentituko zara; lo, jan eta lan egin dezakezu.



Gure enpresaren bezero perfil ohikoenak ikasleak eta lana etxetik urrun egiten duten pertsonak izango dira nagusiki. Adibidez, garraioa itxaroten daudenak, lanetik atera eta bazkaltzeko lekua bilatzen daudenak, lan egiteko leku egokia bilatzen daudenak, ez beharren bat gertatzea eta lo egiteko lekurik gabe gelditzen bada, edo ta, energi gehiago izateko siesta egin nahi izatea eta ezinezkoa izaten diren arazo horien aurrean aurkitzen diren pertsona guzti horiei dago bideratua gure enpresa.



Gure enpresak hotelak edo motelak izango ditu konpetentzia bezela baina gure enpresaren zerbitzua desberdindu egingo dugu, hau da, hotel batek edo motel batek gau edo egun batengatik kobratzen dizu gure enpresa merkeagoa izango da eta gainera zuk erabakiko duzu zenbat ordu, zenbat minutu eta zenbat segundo egongo zaren bertan.

Garapen iraunkorreko helburuak ezinbestekoak dira enpresa batean, helburua hauek inguruneari, pertsonari eta munduari laguntzen diete. Gure betebeharra da gure enpresa helbururen bat betetzea.



Osasuna eta ongizate helburua betetzen dugu: gure enpresak bezeroei, deskantsatzeko eta erlaxatzeko leku bat ematen die, horrek beraien ongizatean eta osasunean lagunduko die, izan ere, deskantsatzea oso garrantzitsua da egunerokoan aktibo egoteko.



LAN & LO
Dedicated, determined and driven.